

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Azkue eta hiperbizkaiera

BILBO, 1891. Resurrección María Azkue gazteak *Euskal Izkindea* gramatika lana argitaratu eta hiperbizkaiera deritzon joeraren oinarri nagusia ezarri zuen. Urte batzuk lehenago, 1948an, Juan Mateo Zabala bilbotarrak, *Verbo regular del dialecto vizcaíno* lanean, bizkaieran erabiltzen ziren aditz forma “erregularrenak” hobetsi zituen zaharragoak eta, beraz, jatorragoak zirelakoan. Azkue (1864-1951) bere lehen lan horretan harago joan zen, inoiz izan gabeko formak asmatzeraino, bereziki Astarloa durangarren *Discursos filosóficos sobre la lengua bascongada* liburuko zenbait proposamen aintzat hartuta. Hala, esaterako, *izan* aditzaren orainaldiko jatorrizko adizkiak honako hauek ziren lekeitiarren arabera: *ni nai, i ai, a dai, gu gais, zu zui, arek dai*.

Hiru iturri horietatik edan zuten XX. mendearen hasieran Bizkaiko idazle aranazale eta garbizaleek eta hizkuntza eredu berria erabiltzen hasi ziren; gerora, Koldo Mitxelena hiperbizkaiera terminoa aukeratu zuen joera hori izendatzeko. Mendebaleko euskarak gainerako euskalkiekin dituen ezaugarri komunak gipuzkeratik “kutsatutako” forma arrotzak zirela uste zuten eta, beraz, horiek saihestu eta soilik Bizkaian erabiltzen ziren adizkiak eta hitzak aukeratzen zituzten. Adibidez, Bizkaiko



Azkue gazteak *Euskal Izkindia* argitaratu zuen 1891n. Hiperbizkaieraren oinarri nagusietakoa izan zen, egileak berak bide hura baztertu arren gerora.

idatzi zuen, eta gero gaztelerara itzuli—. Azkue beraren hitzetan: “Erderaz’ orainarteko izkirariak legez’ izkinde au izkiratu baneu’ arazu ta buruauste gitsiango emon izango eustan nire asmoak, eznintzan itz barririk sortuteko peregina latzean egongo, liburu bi baten ipini bearririk bere ezneuan izango, eta ganera nire lantso onek eukiko dauzan arerio askok’ abegi ohea egingo eutsen”. Zailtasunak zailtasun eta garbizalekeriak garbizalekeria, Azkuek euskarari eman zion lehentasuna.

literaturan erabat orokorra zen *ditu(z)* formaren ordeaz, toki gutxitan erabiltzen zen *dauz* idazten hasi ziren, aurrekoa ia erabat ordezkatzearaino.

Eredu batuaren aldeko joera hazi zenean, ordea, askok hiperbizkaiera kritikatu zuten, batasun ahaleginei kalte egiten ziela eta. Esaterako, Sebero Altubek garbi salatu zuen mendebaldeko eredu “garbi eta jatorra” bultzatzen zuten gramatikarien ahalegina. Azkuek berak bide hori berehala gaitzetsi eta gaztetako bekatutzat jo zuen. Eta, hala, geroko euskara batua mamitzeko egin zuen lan eskerbaren itzalean geratu da *Euskal Izkindea* goiztiar hura.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, lan horrek meriturik ez duenik. Gutxi dute gogoan euskaraz idatzitako lehen gramatika liburua dela —euskaraz

Arrastoak

Museoak musutruk



Parisko Orsay museoa.

IRAGAN APIRILETIK Frantziako 50 museo inguru eta 100dik gora monumentu bisitatu sarrera doakoa da 26 urtez beherakoentzat, besteak beste, Louvre, Orsay eta Picasso museoak edo Pompidou zentroa. Batetik, Kultura ministerioaren enkarguz eginiko ikerketa baten arabera, neurriak gazte gehiago hurbil-

du dituzte museoetara; arrakasta izan du, beraz. Baina museo asko ez daude ados Sarkozyren gobernua- ren erabakiarekin, ez baitiete bermatu neurriaren ondorioz jasoko ez dituzten 30 milioi euroak erakundeetatik iritsiko direnik. Gainera, neurria adin guztietara zabaltzeak 200 milioiko kostua izango luke.